ERAKUSLEIHOA

HAUR LITERATURA

'Elsa eta paradisua'

Mariasun Landa (Ilus. E. Odriozola). Erein. 80 orr. 11 euro.

Paradisuaren bila dabilen neskatoaren istorioa

Elsak bost urte zituenean entzun zuen lehen aldiz hitz hau: pa-ra-di-su. Gustatu egin zitzaion. Bost segundo baino ez zituen behar izan zer esan nahi zuen galdetzeko. Hala ere, inork ez zion erantzunik eman... Uda batean, baina, dama bitxi bat agertu zen Elsa eta familia oporrak pasatzen ari ziren landetxean. Ordurako, hamar urte zituen. Orkatila bihurritu bat ere bazuen, eta, ezin zenez ibili, emakume xelebre hark paradisuari buruz kontatzen ziona entzutera jarri zen. Gainera, nebekin zuen arazo kezkagarria konpontzen lagundu zion horrek.

NARRATIBA

'Emakume bat'

Annie Ernaux. Txalaparta. 100 orr. 14 euro

Ama eta alabaren historia pertsonalen talka

Gorputza eta memoria apurka-apurka hustu dizkion gaixotasun luze baten ostean, Annie Ernauxen ama zahar-etxe batean hil da. Herio hurrenean, idazlea bere amaren bizitzaren ispilu hautsiaren puskak batzen eta osatzen saiatuko da, eta ariketa literario horrek amarekiko anbibalentzia sentimenduak sortuko dizkio: maitasuna, gorrotoa, errukia, tristezia, ulertu ezina... Hala, bada, alabaren kontakizun gordinean, bi emakumeen historia pertsonalek talka egiten dute eta, aldi berean, gainjarri egiten dira.

ZALDI EROA